

IRAKASKUNTZA-GIDA

2022/23

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25958 - Gatazken Eraldaketarako Metodoak eta Teknikak

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Gatazken eraldaketarako metodoak eta teknikak hautazko irakasgaia da. Gizarte Langintzako Graduaren 3. mailako kurtsokoa; Gatazketan Esku Hartzea eta Gatazken Eraldaketaren minorrekoa hain zuzen ere.

Minorraren beste ikasgaiekin harreman estua dauka; batez ere, Gatazken Teoria eta Analisia eta Gatazken Eraldaketarako Trebetasunak irakasgaiekin. Oraingo honetan, aukera paregabea da dituzten jakintza eta trebetasun guztiak martxan jartzeko gatazka interpersonalen kudeaketan.

Gatazken eraldaketarako metodoak eta teknikak irakasgai praktikoa da. Bere helburu nagusia: ikaslegoak gatazka aztertze, ebazteko eta eraldatzeko gaitasuna eta tresnak garatu dezaten profesional bezala, gizartean aurkitu daitezkeen mota anitzeko gatazkeei aurre egin diezaioten. Honelako teknikak lantzen dira: negoziazioa, bitartekaritza, aholkularitza, balioetsiko elkarrizketak, world kafe eta open space, besteak beste.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

01. Ezagutu eta ulertu gatazken analisisen oinarri teorikoak: haren dinamika ulertu eta gatazka egoerak identifikatzen eta definitzen ikasi.[M05CM01]
02. Giza trebetasunak maneiatzea, emozioak kudeatzeko gatazken eraldaketaren prozesuen barruan. [M05CM02]
03. Gatazka kudeatzea ikuspegi kolaboratzaileaz: negoziazioaren oinarriko ereduak ezagutzea, bitartekaritza prozesua garatzen jakitea, gatazka egoerei modu positiboan aurre egiteko aholkularitza erabiltzea.[M05CM04 Y M05CM10]
04. Talde txiki zein handi maneiatzeko errazte prozesuak eta talde lana bultzatzea balioetsiko ikuspegia erabiliz.[M05CM8 y M05CM10]

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

GAITEGIAK: ANECAk onartutako gaitegia

- 1.Gaia Gatazken ebazpena/eraldaketa prozesuen continuum-a.
- 2.Gaia Gatazken ebazpenerako aholkularitza.
- 3.Gaia Negoziazioa.
- 4.Gaia Bitartekaritza.
- 5.Gaia Errazte prozesuak.
- 6.Gaia Esku hartzea talde handietan.
- 7.Gaia Aplikazio esparruak (banaka, familia, eskola, gizarte, penala, e.a.)

UNITATE DIDAKTIKOAK:

- Gatazken analisia. Gatazka mapa eta dinamika. (1.Gaia/01.Konpetentzia).
- Estrategias de negociación en conflictos.(3.Gaia/02.eta 03.Konpetentziak).
- Bitartekaritza prozesua bere osotasunean.(4.Gaia/02.eta 03.Konpetentziak).
- Gatazka partaideei aholkularitza. (2.Gaia/02.eta 03.Konpetentziak).
- Balioetsiko elkarrizketak (5.Gaia/02.eta 04.Konpetentziak).
- Open Space. (6.Gaia/04.konpetentzia).

METODOLOGIA

*METODOLOGIA:

Erabilitako metodologia IAPren (Investigación Acción Participativa) ikuspegia jarraitzen du. Eskola magistralak edo azalpen-eskolak gelako praktikekin tartekatuko da, jarduera anitzekin eta hainbat errol-jokoekin. Metodologia aktiboz, kasuko metodologia erabilikoo da talde lana garatzerakoan.

*PRESTAKUNTZA-JARDUERAK:

Aurkezpen teorikoa bigarren astean, bi role-playing talde bakoitzeko, parte hartze aktiboa eskolatan egiten diren jardueretan.

*EBALUAZIOA JARRAIA:

Ebaluazio jarraia hainbat ekintzetan oinarrituko da: idatzizko frogak (%40), ahozko aurkezpenak (%20), eskolako jarduerak eta partehartzea (%10) eta talde lana (%30).

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45		15						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	67,5		22,5						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 40
- Ahozko defentsa % 20
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 10
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 30

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Eskolatan parte hartu ezin duen ikaslegoak (arrazoi justifikatuaz) bukaerako ebaluaketa izango du (ez jarraitua). Alde batetik, banakako lanak eta bestetik, azterketa egingo du. Ebaluaketaren portzentaiak ebaluaketa jarraikoaren berdina mantenduz.

"Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du lauhilekoko irakasgaien kasuan edo 18 astekoa urteko irakasgaienean, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa edo ikasturtea hasten denetik kontatzen hasita. Irakasgaiaren irakaskuntza gidan epe luzeagoa ezarri ahal izango da" (8.3. art.).

DEIALDIARI UKO EGITEA:

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren %40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin. Aldiz, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 edo hori baino txikiagoa, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari. (12.2 art.). Azken ebaluazioaren kasuan: "azterketa egun ofizialean egin beharreko proba ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea" (12.3 art.).

IKASGAIA BIRTUALKI EBALUATZEKO PLANA

Covid-19ak eragindako pandemiaren salbuespenezko egoera bati berriro aurre egin behar izanez gero, irakaskuntza gidan eta web orrialde ofizialean agertzen diren gidaren irizpideak alda daitezke. Irakasle taldeak hurrengo irizpidea erabiliko luke: "Gatazken eraldaketarako metodoak eta teknikak irakasgaiaren ebaluazio planak aurrez aurreko ebaluazioaren isla izaten saiatuko da, eGela irakaskuntza plataforma birtualean eskuragarri dauden jardueren bidez".

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

UPV/EHUko Gestio Akademikorako Araudiari jarraiki, irakasgai honen froga finala, irakasgaiaren kalifikazio osoaren %50a baino gehiago balio duenez, ikasleak froga honetara aurkeztuko ez balitz, ebaluazio deialdi honi uko egingo dio, eta Ez Aurkeztua bezala kontsideratuko da.

Azterketan zehar kopia egingo balitz:

Ebaluazio proba batean kopiatu egin dela egiaztatuz gero, tartean sartuta dauden ikasle guztiei «suspentso» kalifikazioa jarriko zaie, bakoitzaren erantzukizuna gorabehera. Pertsona bat kopiatzen ari dela proban bertan egiaztatuz gero, momentuan bertan proba egiteari uzteko agindu ahal izango zaio (11.3. art.).

IKASGAIA BIRTUALKI EBALUATZEKO PLANA

Covid-19ak eragindako pandemiaren salbuespenezko egoera bati berriro aurre egin behar izanez gero, irakaskuntza gidan eta web orrialde ofizialean agertzen diren gidaren irizpideak alda daitezke. Irakasle taldeak hurrengo irizpidea erabiliko luke: "Gatazken eraldaketarako metodoak eta teknikak irakasgaiaren ebaluazio planak aurrez aurreko ebaluazioaren isla izaten saiatuko da, eGela irakaskuntza plataforma birtualean eskuragarri dauden jardueren bidez".

Protokoloa Etika akademikoari buruzkoa

"Normalean, eta besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere. (Graduko Titulazio ofizialeko ikasleen ebaluaziorako arautegia" (3. puntu, or.5).

"UPV/EHU honako hauek joko dira jokabide makur edo iruzurrezkkotzat ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan adademikoak egitean eta aurkeztean: Lanak plagiatzeko, hau da, ignoratu lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazi akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan" (2.a. puntu).

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Bojer, M.M.; Roehl, H.; Knuth, M.; Magner, C. (2012). Trazando el diálogo. Herramientas esenciales para el cambio social. Bilbao: Fundación Gizagune. (Orig. Mapping Dialogue. Essential Tools for Social Change. Ed. Taos Institute. 2008).

Lederach, J.P. (2003). The little book of Conflict Transformation. California: GoodBooks

Merino, C; Alzate, R. (2011). "Open Space: calidad e innovación en los procesos de mediación." En R. López (Ed). Aportaciones a la mediación en el marco de la prevención, gestión y solución de conflictos familiares. Granada: Comares. 2011. Cap. XVII, 291-304.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

Alzate, R. (1998). Análisis y Resolución de Conflictos. Una perspectiva psicológica. Bilbao: UPV/EHU

Alzate, R., Fernández, I., y Merino, C. (2013). Desarrollo de la cultura de la paz y la convivencia en el ámbito municipal: la mediación comunitaria. Política y Sociedad 50, 1, 179-194.

Alzate, R.; Merino, C.; Fernández, I. (2015). "La intervención en conflictos mediante procesos adaptativos: valores de la mediación e intuicionismo ético. " En editorial.

Fernández, I.; Merino, C.; Alzate, R. (2014). Inteligencia emocional para la solución de controversias: emociones y procesos de gestión de conflictos. Guanajuato, México: Escuela de Estudios e Investigación Judicial del Poder Judicial del Estado de Guanajuato. (En edi)

Merino, C. (2013). La mediación familiar en situaciones asimétricas. Procesos de gestión de conflictos con episodios de violencia, drogodependencias, enfermedad mental y desequilibrio de poder. Madrid: Reus.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Brinkert, R. (2006). Conflict coaching: Advancing the conflict resolution field by developing and individual disputant process. Conflict Resolution Quarterly, 23, 4, 517-528.

Bush, R.A.B.; Folger, J. (1994). The Promise of Mediation. San Francisco: Jossey-Bass.

Furlong, G.T. (2005). The conflict Resolution Toolbox. Ontario: Wiley.

Jones, T.S.; Brinkert, R. (2008). Conflict coaching: Conflict management strategies and skills for the individual. Thousand Oaks: SAGE.

Mediation Services (2006). Coaching for Conflict Resolution. Training Manual. Winnipeg: Turning Point Training. Mediation Services.

Aldizkariak

Bush, R.A.B.; Folger, J.P. (2014). Reclaiming Mediation's future: Getting over the Intoxication of Expertise. Re-Focusing on party self-determination. www.mediate.com, november, 2014.

Conflict Resolution Quarterly

(ACR)http://www.imis100us2.com/acr/ACR/Publications/Conflict_Resolution_Quarterly/ACR/Publications/Conflict_Resolution_Quarterly.aspx?hkey=d82ab1a2-9a6c-4b61-8cca-678fa05aca01

Interneteko helbide interesgarriak

ACR (The Association for Conflict Resolution)

<https://www.imis100us2.com/ACR/ACR/Default.aspx?hkey=6d51647b-e4cd-49d5-bc8a->

36a4773a9054&WebsiteKey=a9a587d8-a6a4-4819-9752-ef5d3656db55

<http://www.fundaciongizagune.net/index.php/material/publicaciones/idCategoria/1>

<http://inter-mediacion.com>

<http://www.mediate.com>

OHARRAK

Gramatika edota ortografia akatsak izanik, edo idazteko modua egokia ez denean; horrek irakasgaia ez gainditzeko arrazoia izango da.